


1993 MAR. 09

# EGIN



**KORRIKAK ANTOLATUTA EKITALDI EUSKALTZALEA.** Gipuzkoako Batzordeak korrika 8aren aurkezpen ekitaldia burutu zuen larunbatean Astigarragako Gartziategi sagardotegian. Korrika honen helburuak eta beste xehetasunak zuzenean ezagutzeko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren euskaltzaleek. Ekitaldian Juan Mari Mendizabalek, Gipuzkoako AEKko arduradunak, herri inizatiben lanak merezi duen errekonozimendua azpimarratu zuen. Korrika 8 honen lema adierazten duenarekin bat eginez euskararen alde lan egiten dutenen batasungune ere izan zen larunbateko ekitaldia.